

KARKARA

ORIOKO ETA AIAKO ALDIZKARIA / 2008ko urriaren 17a / 247. zenbakia / 19. urtea

- **HERRIKO KONTUAK** **Goiko Kaleko festak** 05
- **KIROLA** **Europako Bullshooter txapelketa** 08
- **AIAKO BERRI** **Udalbatzarra** 11

- **IRITZIA** **Beñat Solaberrieta** 18
- **MOILA BAZTERRETIK** **Aiora Larrañaga** 19
- **HERRITARRA** **Ekain Zubizarreta** 25



“Herriak erabakita
gara **legezko**”

Orioko Udalean Ezker Abertzaleko Udal Taldeak egiten duen lanari buruzko solasaldia izan dugu Karmele Belaskorekin.



Negu honetan, ahaztu hotza.

ESKABITZA
DEKORAZIA

Naturgas energiarekin, gas naturalez gozatuko duzu etxean.

Orain, erosotasunik handienaz gozatzea inoliz baino errazagoa da. Izan ere, fabrikatzaileekin eta gas-
instalatzaileekin lortutako akordioari esker, guk gas naturalerako instalazio osoa egingo dizugu, eta zuk orain
arte sekula inork eskaini ez dizkizun baldintzak izango dituzu.

Egundoko prezioan:
3.300€
(BEZ kanpo).

+

KREDIGAS
finantziario berezia,
instalazioa hileko kuota erosotari
finantzatzena

+

570€
ere emango dizugu

Promozio honek 08/12/31ra bitartean iraungo du.

Finantziario berezia honen interes-tasa 2008ko %5,25ekoa izango da iCredigas. Osuak laster baduzu, edo 45 urte garako bazara, 570 €- jasoko duzu; halakorik
ez baduzu, 270 €- jasoko duzu. Prezioa gutxi gorabeherakoa da, baina instalazioa egiteko, kondentsazio-galdara inorkaren arabera eta 6-erazkideen (65 elementu)
jartzeak. Promozio estandarriaren gaineko edozein aldatzeak, aparteko aurrekontua izango du. Promozio honeraz baliatzena, Naturgas Energia Comercializadora, SAJrekin
harikuntza aldi egin behar du.

902 123 456 Telefono Urdina
www.naturgasenergia.com



**naturgas
energia**

KARKARA

ORIOKO ETA AIAKO ALDIZKARIA

Kultur Etxea
20810 ORIO
943 83 15 27karkara@karkara.com
www.karkara.com**Editorea**

KARKARA taldea kultur elkarte

Zuzendaria

Ana G. de Txabbarri

Erredakzio burua

Lore Berasaluze

Erredakzio taldeaMikel Aranzabal, Pat Cowie,
Miren Etxebarria, Patxi Uranga
eta Jabier Zabaleta**Aiako erredakzioa**

Eli Lasa eta Pat Cowie

Publizitatea

Pat Cowie

Publizitatearen diseinua

Patxi Uranga

Testuen zuzenketaMiren Etxebarria eta
Jabier Zabaleta**Ale honetako laguntzaileak**Jon Ander Azpiroz,
Imanol Esoain eta
Beñat Solaberrieta**Diseinua**

KARKARA taldea eta Goio Arana

BanatzzaileakJosu Lizarralde eta
Itziar Aiestaran (Orio)
Iruñe Aldai (Aia)**Inprimategia**

Gertu Koop. E. (Oñati)

Lege gordailua SS-346/90**ISSN** 1132-1105**Tirada** 3.100 aleKARKARAK ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen edota
iritzien erantzukizunik.KARKARAN argitaratutakoa berreman
daiteke, osorik edo zatika, baldin eta
iturria aipatzen bada.


Dianak eta ez dianak

IMANOL ESOAIN (ERRIKOTXIA BERTSOZALE TALDEA)

1
Unar Team eko dardozaileak
Portugalera joanak,
batzuk primeran ibili ziren
eta oso ondo danak,
nola ez diren alperrik izan
entrenamentuko lanak
dardoarekin jotzen dituzte
dianak ta ez dianak.

2
Ea asmatzen dezuen zein dan
Europako txapelduna,
Atletik zale amorratua
horregatik ezaguna,
dardotarako ere Bizkaian
aurkitu zuen laguna,
lanen ez baña Unarren ordu
gehien pasatzen dituna.

3
Bai irakurle asmatu dezue
txapelduna da Joseba,
zuritua epela dagola esan
ta esateuna keba-keba,
dardotarako trago epela
ona izango ote da?
Noski, bestela sekula etzan
joango Las Vegasera.

**PUBLIZITATE PREZIOAK****IRAGARKIA ALERO JARRITA**

Modulu bat	12,00 €
Bi modulu	24,00 €
Hiru modulu	36,00 €
Lau modulu	48,00 €
Sei modulu	72,00 €
Zortzi modulu	96,00 €
Orrialde erdia	120,00 €
Orrialde osoa	204,00 €

IRAGARKIA BEHIN JARRITA

Modulu bat	16,00 €
Bi modulu	31,00 €
Hiru modulu	47,00 €
Lau modulu	64,00 €
Sei modulu	95,00 €
Zortzi modulu	127,00 €
Orrialde erdia	174,00 €
Orrialde osoa	306,00 €

Publizitatea kontratatzeko Pat Cowierekin hitz egin (695 78 07 20) edo karkara@karkara.com
Prezio hauei BEZa gehituko zaie

LAGUNTZAILEAK

Euzko Jaurlaritzak

Kultura Sailak
diruz lagundutako
hedabidea

Alkatearen akatsak

KARKARAKO azken alean, 246.ean, 5. orrialdeko albiste nagusian, eta azkeneko paragrafoan agertzen diren gure alkate jaunak emandako iriztiak argitzea da gutun honen asmoa.

Lehenengo, *Eusko Jaur-laritzak Muntoko planari baiezkoa eman badio, ur azpian geratzeko arriskurik ez dagoelako izan dela* uste du gure alkateak.

Jakin ezazu eta zure begiekin ikus dezakezu, Munto inguruak urak hartzeko arriskua duela honako Eusko Jaur-laritzaren web orrian: <http://tinyurl.com/3sy2v8> eta bertan agertzen dira argibideak.

Bigarrenik, *Arkupek Euskal Herriko Auzitegi Nagusira ere jo zuela Muntoko lanak geratzeko eskatzeko, eta hark ere Udalari eman diola arrazoia* esaten du alkateak. Bada, oraindik Arkupek ez du horre-

GUTUNERAKO OHARRAK

Argitaratu nahi diren gutunak KARKARAREN helbidera bidal daitezke edo gure lokalean eskuz entregatu (Kultur Etxean). Posta elektronikoz ere bidal daitezke honako helbidera: karkara@topagunea.com

KARKARAK ez du argitaratuko izenik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badi, ezizenarekin joango da; baina, beti, guk egilea nor den jakinda.

Gutunek, gehienez, 200 hitz izango dute. KARKARAK bere egiten du eskutitzak laburtzeko eskubidea.

lakorik egin; beraz alkatea gezurretan ari da.

ARKUPE ELKARTEA

Hitza hitz ekimena

Eusko Alderdi Jeltzaleak, Eusko Alkartasunak, Ezker Batuak eta Aralarrek datorren urriaren 25ean erabakitze eskubidearen aldeko ekimen bateratu egitea adostu dute.

Eusko Legebiltzarrak gehiengo osoz onartu zuen Legearen arabera, egun horretan, euskal herritarrei kontsulta egitea iragarrita zegoen. Gerora, Gobernu espainolak horren kontrako helegitea jarri zuen, eta Auzitegi Konstituzionalak debekatu egin zuen.

Hitza hitz lelopean, euskal herritarrei dei egiten zaie, Gernika eta Gasteiz arteko toki zehatzetan batzera. Parte har-

tu nahi duten herritarrek *euskal, herria, bakea, bai, erabakia* eta *bai* hitzak osatuko dituzte sei tokitan.

Bertara joateko oraindik izena eman ez baduzue, egin ezazue lehenbailehen UBBeko norbaiti esanez edo Batzokiko 943 89 07 89 telefonora deituz 19:00etatik 20:00etara. Autobusa goizeko 9:30ean aterako da eta 15:00ak aldera bueltatuko da.

Euskadin bakea eta normalizazio politikoaren gaineko herri kontsultaren aldeko atxikimendu agiriak sinatzeko aukera iere zango da astelehenetik ostiralera 19:00etatik 20:00etara eta larunbat eta igandetan 11:00etatik 13:00etara Orioko Batzokian.

ORIOKO EAJ

Ez nahastu

Aurreko KARKARAN Kukuarri ezizenarekin zetorren gutuna ez da Kukuarri dendakoek egindakoa.

JESUS ESNAL

EGIN EZAZU ZURE PUBLIZITATEA

KARKARA

943 83 15 27

ALDIZKARIAN

MA*NA lokutorioa

guztira • baxoak • txakurrak • txakurrak (gizak, jatorriak, adinarenak...) • haitzuek (guztira, baxoak, txakurrak, txakurrak) • argizko erakundeak • argizko erakundeak • argizko erakundeak • argizko erakundeak • argizko erakundeak • argizko erakundeak

Enaia erparantza,1
20810 ORIO (Gipuzkoa)

Tel./Fax: 943 13 50 82
locu-mana@euskalnet.net

ODITZ

Suma zahar eta antzinarik
guztira erakundeak

Tel. 943 83 00 89

Antillak

ANTILLA

jalotzaia

Muskari kalea, 2 - TEL. 943 83 27 09

AUTOAK AUKERA ONEAN

AIA ORIO

Telefonoa: 943 13 04 38

Kibikladenda- Ume arropa

argine

www.lasone.com/argine
Tel. 943 13 48 89

2,5eko DESKONTUA FAMILIA
UGARJEN TXARTELAREKIN

Automóviles ZARAUTZ

OTROEN ZERBITZU ORZALA

bigiari bertok
eta ia bertok
bigiari

ZARAUTZ. Tel. 943 13 13 50

Carmen eta Txomin ARRADECIAK

943 83 05 37 / 943 83 27 47

ERABAT GUSTURA DAGO JAI BATZORDEA FESTEK IZANDAKO ERANTZUNAREKIN

Goiko Kaleko jaiek arrakasta handia izan dute aurten

Laugarren urtez jarraian ospatu ziren aurreko asteburuan Goiko Kaleko festak. Lagun asko ibili zen aurrera eta atzera Pilliku plazaren inguruan.

Goiko Kaleko festen biharamunean, gustura dago Jai Batzordea izandako arrakastarekin. Urriaren 10ean hasi eta 13a bitartean, lagun asko ibili da Pilliku plaza inguruan.

Orioko Batukada Taldearen saioarekin hasi ziren festak, ostiralean. Ondoren jokatutako mus txapelketan 15 bikote aritu ziren nor baino nor. Ainara Peñak eta Iñaki Zalduak osatutako bikotea izan zen onena eta txapela, txuleta eta botila ardoa jaso zituzten. Lurdes Elizalde eta Bitor Zinkunegi izan ziren bigarren, eta Ibon Berasaluze eta Manex Barrenetxea, hirugarren.

Zenbait berrikuntza ere izan dira aurtengo egitasmoan: bigarren eskuko liburu azoka, esaterako, bi egunez egonzen zabalik, Urdaire kalean. Farfara elkarteok zainduta, ehunka liburu jarri ziren irakurzaleen eskuetan, hartu eta etxera eramateko, doan.

Blai talde oriotarrak ere lehen aldiz eskaini zuen *Altxorren bila* txotxongilo emanaldia. Haur ugari elkartu zen Iturbide kaleko aterpeetan, pertsonaje berrien esanak adiadi entzuteko.

Urtero errepikatzen diren ekintzekin ere kontentu daude antolatzaileak. Krono-igoreran, dozenatik gora txirindulari izan ziren. Xanti Barranco izan zen bizkorrena helduen artean eta Iraitz Unanue gazteenetan. Toka txapelketan ere egundoko lagun mordoa aritu zen. Aitor Ostolazarentzat eta Karlos Rodriguezentzat izan ziren txape-



50 bat lagun bildu ziren larunbatean, Aldapa elkartearen egin zen kantu bazkarian.

KARKARA

lak —horiak, kasu honetan. Kantu bazkarian, berriz, 50 bat lagun elkartu ziren.

Igandeko tortilla patata lehiaketak ere arrakasta izan

zuen. Kolore eta zapore guztietako 20 tortilla aurkeztu ziren txapelketara eta epaimahiaren ustez, Andoni Aranzabalena izan zen goxo-

ena. Berak eraman zuen sari berezia: sukaldeko mantala.

BALORAZIO ONA

Festa Batzordearen arabera, orain arteko Goiko Kaleko jaiarik onenak izan dira aurtengoak, bai programazio aldeetik eta baita jendearen parte hartzeari dagokionez ere. Lehen aldiz jarri duten karpak ere lagundu diela aitortu dute: *Pillikun karpa jartzeak ikuskizunak plazatik ateratzea esan nahi zuen eta pena ematen zigun, baina jai giroa ondoko kaleetara zabaldu dela konturatu gara eta polita izan da.*

Bestalde, lau urteetan hartutako eskarmentua ere nabaria dela adierazi dute antolatzaileek: *Gauza berrietan akatsak egin ditzakegu, baina gainontzean primeran moldatu gara.*

Bigarren eskuko liburu azoka bi egunez egon zen, Urdaire kalean. Farfara elkarteok zainduta, ehunka liburu jarri ziren irakurzaleen eskuetan, hartu eta etxera eramateko, doan

Lau urteetan hartutako eskarmentuarekin, orain arteko Goiko Kaleko jaiarik onenak izan dira aurtengoak, Festa Batzordearen arabera: egitarau interesgarri eta zabalarekin eta parte hartze handiarekin

ELIZAKO ZIMITORIOAN, ILUNTZEAN, IA ORDUBETEKO EMANALDIAREKIN

Oteiza omentzeko ekitaldi berezia egingo da 21ean

Jorge Oteizaren jaiotzaren mendeurrena ospatzeko ekitaldi berezia antolatu du Udalak urriaren 21erako.

19:45ean hasita, 45 minutuko ikuskizuna izango da elizako zimitorioan, hilaren 21ean, Oteizaren jaiotza egunean: omenaldia artistaren grabazioarekin hasiko da eta Iñaki Iturainek eta Jon Redondok hartuko dute hitza gero. Tomas Esnaolak diseinatutako eta seguroletarrek egindako *Oroitarría oriotarrari (1908-2003)* corten altzairuzko xaflak agerian utziko dira gero, eta ohorezko aureskua dantzatuko dute, segidan, Harribilekoek. Ondoren, Andoni Egañak artistari jarritako bertsoak eta olerkiak kantatuko ditu Unai Manterolak. Iñaki Bastosek eta Jose Antonio Gurrutxagak hartuko dute txanda, txalaparta saioa eskaintzeko. Ibi Arrizabalagak ere olerkiak errezitatuko ditu. Antton Valverderen *Hutsa* abestia joko du biolinarekin Jurdana Otxoak, eta Xabier Sukiak eta Ibai Esoainek bertso bana botako dute Oteiza bera *Nadie es profeta en su tierra* lanean entzun aurretik. Bukatzeko, Egunsenti otxoteak *Androkanto* abestuko du.

URRIAN ETA AZAROAN

Bi erakusketa zabalduko dira kultur etxean: herriko bi ikas-tetxeetako ikasleek egindako lanena bata, urriaren 21etik



Oteiza Orion, txapela eta guzti.

KARKARA

Urrian eta azaroan ere izango dute jarraipena artista omentzeko egingo diren ikuskizunek

28ra, eta Oteiza. *Bizi proiektua*, bestea. Pello Zabalak hitzaldia emango du 22an, eta 23an, berriz, *Hala mintzatu zen Zappatrusta* baka-

rrizketa eskainiko du Ander Lipusek. Kultur etxean izango dira biak, 19:00etan. 26an, Bilboko Txistulari Bandaren kontzertua izango da elizako zimitorioan, 12:40etan.

Maite Francok haurrentzako istorioak kontatuko ditu azaroaren 13an, liburutegian, 18:00etan. 26an *Fragmentos* filmaren bi emanaldi izango dira kultur etxean: 15:00etan eta 19:00etan, eta 27an *Oteiza poliedrikoa* mahai-ingurua Jon Sarasuarekin eta Jose Anjel Irigararekin, 19:00etan.

LABUR

BABES LEKUA Internet

Zaharren Babes Lekuak bazkideentzako internet ikastaroa antolatu du azarorako. 24 laguntzako dago toki eta urriaren 23a izango da izena emateko azken eguna. Interesatuak Zaharren Babes Lekuko paretan dagoen zerrendan idatzi beharko dituzte beren datuak.

ZINEA

Zorion perfektua

Anjel Lertxundiren eleberrian oinarritutako filma grabatzen hasi da aste honetan Jabier Elortegi Zarautzen. Anduk berak parte hartu du gidoia egiteko garaian. Protagonistak ezagunak izango badira ere, extra bila ibili dira eta Zarauzko eskoletako nerabe jendeari dei egin diote.

INGURUMENA

Edukiontzi berriak

Urola Kostako Udal elkar-atea edukiontzi berriak jartzzen ari da Orion eta Aian. Hemendik aurrera kartoia eta papera, ontzi berean utzi beharko dira, urdin kolorekoan. Horrelako bederatzina edukiontzi jarri dituzte bi herrietan. Orain, plastikozko ontzi arinak biltzekoak aldatzen hasiko dira: 16 jarriko dituzte Aian eta 12 Orion.



TORREALDAY
aholkularitza

Agentea: Olariaga

Berezitasunak:

- ✓ Enpresa berriak sortzeko diru-laguntzen kudeaketa. Txekin.
- ✓ Aseguru artekaritza.
- ✓ Finken administrazioa.

Bazkide 4. behean. Tel: 943 13 37 20 Fax: 943 83 52 89 www.torrealday.com e-mail: olariaga@olariaga.com



RAMIRO
argazkiak

www.fotoramiro.com
fotoramiro@fotoramiro.com

610 69 76 68
943 83 10 48

BENITOREN KLASIKO BIHURTZEKO OSAGAI GUZTIAK DITUZTE ABESTI BERRIEK

Kalean Benito Lertxundiren disko berria: *Itsas ulu zolia*

***Itsas ulu zolia* du izena Benito Lertxundiren disko berriak. Elkar etxeak ekoiztuta, dendetan da dagoeneko.**

Bost urte eta gero, disko berria du Benito Lertxundik, zaleen gozamenerako: *Itsas ulu zolia*. Hamar abesti jaso ditu lan honetan, erreperorioan klasiko bihurtzeko osagai guztiak dituztenak: *Kantuz, Bakea, Ilargia, Hitzak, Haizeak jotzen zuen, Ni gatibu hartzeko, Itzala, Partida tristea Ternuarat, Marinel galduaren balada* eta, ekainaz geroztik, KARKARA.COM atarian entzungai izan dugun, *Mirotzak* abestia. 45 minutu pasatxo izango ditu bildumak musikaz gozatzeko.

Hitzei dagokienez, Olatz Zugastiren, Jon Maiaren, Andoni Egañaren eta Iñaki Azkunereren testuak aurkituko ditugu, Benitoren letrekin batera. *Partida tristea Ternuarat*, aldiz, XVI. mendeko testu anonimo batekin osatu du. Abesti horrek Donibane Lohitzuneko arrantzaleek, Ternuara abiatu aurretik, kaian, senideak agurtzen zituzteneko uneak deskribatzen ditu. *Kantuz*, berriz, Joxe Mendiague kantagileak XIX. mendean idatzitako abesti ezagunaren bertsioa da.

AURKEZPENA DONOSTIAN

Itsas ulu zolia udaberrian grabatu zuten, Elkar etxeak



Hamar kantu bildu ditu Benito Lertxundik urriaren 16an kaleratu zuen *Itsas ulu zolia* disko berrian.

KARKARA

Donostiako Igara auzoan duen estudioan. Nahasketak eta masterizazioa, berriz, Amezketako Musikart estudioan egin zituzten Mikel F. Krutzagarekin.

Zuzeneko emanaldietan lagun izaten dituen ohiko musikariez gain, hainbat eta hainbat lagunek hartu dute parte grabaketa prozesuan. *Mirotzak* abestia, esaterako, oso kolaboratzaile bereziak izan ditu oriotarrak: Imanol Urkizu atabalarekin eta Gra-txiña Lertxundi, alaba, eta

herriko hainbat arraunlari ahotsetan. Gainerakoetan, Jauntxo Zeberio, Fernando Ederria, Pello Ramirez, Kutxo Otxoa de Eribe, Josemari Irastorza, Gurutz Bikuña, Angel Unzu, Igor Telletxea eta Mikel Artieda izan ditu Benitok alboan.

Aurkezpen kontzertu bat baino gehiago egingo du: lehenengo azaroaren 9an eskainiko du Donostiako Kursaa-len. Iruñeko Baluartan eta Bilboko Euskaldunan izango dira hurrengoak.

Lan berria aurkezteko lehen kontzertua azaroaren 9an eskainiko du Donostiako Kursaa-len. Iruñeko Baluartan eta Bilboko Euskaldunan izango da, gero

Lizaso dekorazioa

Euzko Gudari, 40
Tel: 943 83 09 74 Fax: 943 83 09 74

Plataforma **ELKAR**

pintura eta paperatze lanak zoru leunketa

Abenduko industriagorria
940 83 08 45 / 819 60 23 35
ZABAUTZ

Dorronoro Denda

1961etik zure ondoan

AUKERA HANDIAGOA FRUTATEGIAN

Tel 943 83 09 37



Txapelketako garaikurra eskuetan duela, gustura dago Joseba Unanue.

KARKARA

LAS VEGASKO MUNDUKO TXAPELKETAN JOKATZEKO TXARTELA LORTU ZUEN

Unanue garaile Europako Dardo Txapelketan

Urriaren 2tik 5era Portugalen izan zen Europako Bullshooter Dardo Txapelketan maila ona erakutsi zuen Orioko dardo taldeak.

Taviran (Portugal) jokatu zen Europako Dardo Txapelketa irabazi zuen binakako master kategorian Joseba Unanue oriotarrak. Kategoría berean jokatzeko duen beste oriotarrik ez dagoenez, Basauriko Miguel Angel Villimar izan zuen bikotekide cricket modalitatean, eta oso ondo moldatu ziren biak lehen aldia izateko. Europakoa irabazita, 2009ko apirilean Las Vegasko (AEB) Munduko txapelketan jokatzeko txartela irabazi zuten biek.

UNAR TABERNA BEREZIYA

10 kide joan ziren txapelketara Unar Taberna Bereziya dardotaldetik: 9 oriotar eta par-

te hartzerik izan ez zuten Saioa Urdangarinen ordezkotzar bat. Taldekide guztiek emaitza onak lortu zituzten, orokorrean; Errenteriako talde batekin jokatu behar izan bazuen ere, Jon Lertxundik 5. postua lortu zuen amateur kategorian, esaterako, eta Jose Ramon Unanue eta Otero, aldiz, 4. izan ziren amateur kategoriako 501 modalitatean.

Joseba Unanuek aitortu duenez, beren artean giro ona izan da: *Ondo moldatzen gara taldean eta joaten denak berriz errepikatu nahi izaten du.*

ABENTURAN

Bilboko aireportuan bertan hasi ziren Unar taldearentzat abenturak. Izan ere, Joseba Unanue dokumentazioa etxean ahaztu zitzaion eta hegaldia atzeratu egin behar izan zuten. Josebak esan digunez, lehen egunean trakets

Hamar kide joan ziren Europako Bullshooter txapelketara Unar Taberna Bereziya dardotaldetik: 9 oriotar eta zarauztar bat

samar jokatu zuten, nekeagatik, baina gustura aritu ziren gero. Hala ere, zer kritikatu izan dute: *Azken egunean, 501 modalitatean onenen artean sailkatuta nengoela, jokatzeari utzi eta hegazkina hartu behar izan nuen, antolakuntzak hala erabaki zuelako. Amorratu egiten nau gustukoan dudana jokoan partida erdizka utzi beharrik. Nik txapelketa osoan aritzeko esku-bidea lortu nuen.*

LABUR

OROKORRA

Sasoian.info

Irailaren azkenetan jarri zen martxan Urola Kostako kirolari eta kirolzaleen bilgune izan nahi duen www.sasoian.info web gunea. Urola Kostako Udala Elkarteak sortutako orrialdeak eskualdeko kirol jardueren nondik norakoak bilduko ditu. Horrez gain, aldizkaria ere kaleratuko du Elkarteak hilean behin.

FUTBOLA

Infantilak primeran

Infantil kategoriko Orioko futbol taldeak ondo hasi du denboraldia, ez baitu galdu partida bakar bat ere. Aurrena dago sailkapenean, azken partida 18-0 irabazita. Emakumezko kadeteek, ordea, ez dute oraindik irabazi: 2 galdu eta 3 berdindu dituzte.

JUDO A

Emaitza onak

40. San Martzialko Txapelketan emaitza paregabeak lortu dituzte Oiana Blanco eta Ibai Peña oriotarrek. Txapela buruan zuela itzuli zen Blanco Irungo Artaleku kiroldegitik, 52 kg-z azpiko kategorian bera izan zen onena eta. Peñak, berriz, zilarrezko domina lortu zuen, 66 kg-z azpikoan artean.

ARRAUNA

Aldaketak

Orioko Arraun Elkarteak 19 urte egin ondoren, Patxi Francesek 3 urtez Zierbenako arraunlari taldea entrenatuko du. Ibon Gaztañazpi, berriz, Orion egingako 20 urteak eta gero, Santurtziko prestatzaile izango da datorren denboraldian.

BORJA ZINKUNEGI | ORIOKO TABERNAK TALDEKO ATEZAINA

“Partidetan harrotu egiten naiz eta dena ematen dut”

Hiru urte daramatza Borja Zinkunegik areto futboleko taldearen atea zaintzen. Denboraldi honetan lehenengora pasa da, orain arteko Joxemari Zulaika atezainak taldea utzi ondoren.

Aldaketa garaiak al datoz?

Bai, halaxe da. Bi talde iza-
tetik batera pasa gara, jendea
falta genuela eta. Hala ere,
azkenean, nahikoa talde poli-
ta elkartu gara. Izan ere, iaz
Orioko Tabernak utziko zute-
la esan zutenak, ohorezko
oroigarri bat ere jaso zuten
horiek (Gari, Iban, Igor...),
hemen dabilta oraindik buel-
taka, baloiaren atzetik korri-
ka. Jaso zituzten plakak itzu-
liko dituztela ere agindu digu-
te; ikusiko dugu zer gertatzen
den.

Eta zuri dagokizunez?

Beno, lehenengo taldean
jardungo naiz hemendik
aurrera, Joxemari ordezka-
tzen. Hala ere, denboraldian
joanean etorriko omen da, ez
dakigu partidak ikustera edo
jokatzera. Entrenatzen, behin-
tzat, gurekin arituko dela esan
digu, baina oraingoz, behinik
behin, ez dauka jokatzeko
fitxa.

Gauzak horrela, uste dut
entrenatzaileak nigan kon-
fiantza baduela, eta nirekin
kontatzen duela atea behar
bezala zaintzeko.



Ilusioz hasi du Zinkunegik aurtengo denboraldia.

KARKARA

Ardura berriak beldurrik ematen al dizu?

Pixka bat bai, egia esan;
beldurra baino gehiago, erres-
petoa. Aurreko hiru denbo-
raldietan, partidaren bat edo
beste jokatu izan dut lehen tal-
dearekin, eta orain baino
urduriago egoten nintzen.
Beste begi batzuekin ikusten
dut taldea orain, hobeto eza-
gutzen ditut jokalaria eta
badakit nola jokatzeko duen
taldekide bakoitzak. Gaine-
ra, guztiok batera entrena-

tzak—lehen bi talde gine-
nez, bi saio egiten ziren— sal-
tsa badu, eta baditu bere alde
onak ere: kontzentratuagoak
izaten dira prestaketak, arre-
ta handiagoa jartzen dugu
jokoa.

Kategoriaz aldatzea salto handia al da zuretzat? Nola ikusten duzu zure burua?

Hor harrapatu nauzu. Ez
dakit aurtengo denboraldia
luze joango zaidan ala ez.
Dakidana da, kategoria hone-

Beste begi batzuekin ikusten dut taldea orain; gehiago ezagutzen ditut jokalaria eta badakit nola jokatzeko duen taldekide bakoitzak

tan jokatzeko gogoz, irrikaz
nagoela; momentuan bai,
behintzat. Lehenengo parti-
dak jokatu eta gero, gauzak
alda litezke; akaso, handiegia
gingo zait, baina ez dut uste
horrelakorik pasako zaidanik,
hala espero dut, behintzat.

Zer nahi duzu 08-09 denboraldirako?

Nik beti irabazi egin nahi
izaten dut. Urtero, denboral-
dia prestatzeko egiten ditugun
lehiatan gauza bera esaten
dut, aurten txapelketa gurea
izango dela, txapela jantziko
dugula. Gero, gauzak aldre-
bestu egiten dira, baina... Liga
irabazteko esperantza badau-
kat. Entrenamenduetan ez
dut asmatzen eman dezake-
dan guztia ateratzen— ez dut
astean bitan egiten ditugun
saioterako balio—, baina
partidetan beste kontu bat
da; harrotu egiten naiz eta
dena ematen dut.



MIGUEL IRIARTE | EKITAZIOKO ETA INGELESEKO IRAKASLEA

“Zaldiak eta gizakiak on egiten diogu elkarri”

Pagoeta inguruan gazte batzuk zaldi gainean ikusi badituzu, Miguelen ikasleak eta animaliak izango dira, noski. Buru belarri ari da zaldiak era naturalean hezteko ahaleginean, jendeak zaldiak ezagutzeko eta gainean ibiltzeko.

Noiztik interesatzen zaizu zaldiak heztea?

Orain dela 22 urte hasi nintzen zaldiekin. 5 urte izango dira hau erosi genuela, eta geroxeago egin genuen erakuntza. Oso garrantzitsua izan da lekua Aian topatzea, beste leku askotan bide guztiak hormigoiztuta daude eta. Gainera, hemengo lasaitasunak asko balio du, bai animalia-erentzat bai erabiltzailearentzat ere. Genetikak eragin handia izaten du zaldiengan, eta inguru honetan astunek ez dute balio. Mugitzeko bizkorrak behar ditugu eta, bide batez, lasaia.

Eta zerk bereizten zaituzte zaldi eskola arrunt batetik?

Era naturalean hazten ditugu zaldiak jaiotzen diren egunetik. Bere inguruko beste bat zarea sentitzen du zaldiak. Horrela, geroxeago, ukitu behar duzunean, gainean ibiltzeko, ferratzeko... askoz errazago egiten da. Zaldia naturan liderra duen taldean ibiltzen da. Harreman estua edukiz eta animalia-erentzat gortzeko hizkuntza erabiliz, liderra zeu zarea erakusten diozu, eta konfiantza jartzen du zuregan. Inguru naturalean bizi da; ez dugu itxitura baten barruan egun osoan edukitzen, bueltaka edo saltoka: Pagoetara, Erniora edo hondartzara joaten gara. Hitz gutxitan, animalia-erentzate psikologikoa bilatzen



Zaldiak errespetuz eta arduraz zaintzen ditu Miguelek.

KARKARA

Animalia-erentzate psikologikoa bilatzen dugu. Ez dira autoak

dugu. Ez dira autoak, ordu-betean erabiltzeko eta gero utzi, ezta urte batean hartu eta hurrengoan saltzeko ere.

Zein da proiektua?

Orokorrean jendeak inguru naturalekin harreman izatea zaldien bidez. Larunbatetan gaztetxo taldeak izango ditugu. Goiza edo arra-

Inguru naturalekin jendeak zaldien bidez harremana izatea da helburua

tsalde osoa pasako dute hemen, denetatik egiten: belarditik zaldia ekarri, garbitu, jaten eman, simaurra kendu... eta baita zaldi gainean ibili ere. Zaldiak sakonki ezagutuko dituzte eta errespetu osoz tratatu. Igandetan, txangoak egingo ditugu. Lanegunetan heldu batzuk etorriko dira umerikgabe aur-

kitzen direnean.

Bestalde, bizitza osoan ingeles irakasle izan naizenez —batxilerra Ipar Ameriketara eta Ingeles Filologia unibertsitatean ikasi nituen— udako eskolak antolatu nahi nituzke hizkuntza eta zaldien ezagupena uztartzeko. Ea datorren udarako lortzen dugun.

Aurten, Aiako udalekue-tako haurrak etorri ziren, eta ondo pasa zuten zaldien gaineko gauzak ikasten, eta nahi zuten guztiak zaldi gainean ibili ziren.

Zaldiekin egoteak on egiten die umeei?

Gauza harrigarri batzuk ikusi ditugu arazo psikologikoak zituen gazte batzuegan. Zaldiak gustukoak badituzte, denborarekin, asko hobetzen dira zaldiekin zein jendearekin dituzten harremanak eta portaera, eta lasaitu egiten dira. Zaldiak ez digu ezer eskatzen; errespetuz gauzatzen badugu harremana, on egiten diogu elkarri.

Honekin bizi daiteke?

Hori espero dugu! Ez gara aberastuko, baina asko balio du gustuko lana egiteak. Gazteentzako saioak, adibidez. Normalean ordubetegatik kobratzen dena saio baten-gatik kobratzen dugu. Bestalde, heldu batzuk eskatzen digute zaldia zaintzea, edo beste bat erostea. Alde komertziala zaindu behar da, jakina, baina nikez dut asko balio horretarako. Bizitzeko behar dudana adina diru egin eta animaliekin eta naturarekin gozatea da nirea.

Agorregira jaisten den erre-pidean gaude, Manterola baserria baino lehenago, ezker aldean. Bestela, niri deitu 650 87 09 66 telefonora.

EAE-REN ILEGALIZAZIOA ETA ARMENDIGAIN ETXEETAKO KALIFIKAZIOA HIZPIDE

Politika eta etxebizitzak, udalbatzarreko gaiak

Urriaren 7ko udalbatzarrean politikoki zein sozialki garrantzizkoak diren bi gai aztertu zituzten: EAEn legez kanporatzea salatzen den mozioa eta Armendigain kaleko etxebizitzaren kalifikazioa.

Orain dela gutxi EAE legez kanpo utzi dutenez, horren aurkako mozioa aurkeztu zuen Antxon Gomezek Udalaren aurrean. Zinegotziak esan zuenez, *Legez kanporatzeek ekartzen dute egoera ez demokratikoa denentzat. Egoera okerragoan sartuko gara herritarrek bozka bidez jarritako bi alderdietatik bat desagertzen bada. Eskubide zibil eta politikoak kentzen dizkigute bai guri, zinegotziei, bai, kasu honetan, Aiako herritarrei. Eta kondenatzen du Udala hau alderdi bakarreko udal izatera, dauzkan ondorio demokratiko guztiekin.*

Alkateak, berriz, beste mozio bat aurkeztu nahi zuela azaldu zuen: *Parte handian ados gaude Gomezek esandakoarekin, ilegalizazioak ez baidakaitu inora eramaten. Hala ere, zortea dugu kasu honetan, EAE bezala ez, baina zinegotzi bezala jarraitzeko aukera izango dutelako eta bozkatu egongo direlako, herriaren alde lana egiteko.* Bozketan jarrita, EAEn mozioa ez zen onartu eta bai, ordea, EAJrena, aldeko 5 botoekin eta EAEn hiruren abstentzioarekin.

TALDE MISTOA

Gomezek talde mistoa sortzeko proposamena egin zuen eta alkateak erantzun: *Hori lortzeko, barne araudia onartu beharko du Udalak, eta horren ondoren, prozedurari hasiera eman.* Prozedura hasia proposatu zuen eta aho batez onartu zuten.



Zinegotzien egoeraren gaiari heldu zioten udalbatzarrean.

KARKARA

**“Legez kanporatzeek ekartzen dute egoera ez demokratikoa denentzat”
—Antxon Gomez**

ETXEEN KALIFIKAZIOA

Armendigain kaleko etxebizitzaren kalifikazioa izan zen herritar askorentzako gairik garrantzitsuenetariko bat, 2006an sortu zuten kooperatibaren bidez etxe bat erosteko aukera izan baitute. Jabeek Udala eta Aia Lantzenekin izandako arazoak direla eta, etxeak okupatzeko aukera atzeratzen joan da, eta, udalbatzar honetan kalifikazioa

egiteko eskatu zuten, prozesuabukatzeko. Hala ere, Itziar Azurza idazkariak esan zuen eskarian kooperatibistek gauza bat argi utzi nahi zutela: *Kalifikazio eskaria egin dute, baina beren ustez kalifikazioa ez da zuzena. Halabeharrez egin dute, epeak, abala eta presio ekonomikoa medio. Esaten dute ez dela eskatu beharko luketen gauza bat, baina behartuta aurkitzen direla.* Mozioan Armendigain kaleko 18, 19, 20 eta 21 atarrietako 24 etxebizitzaren, trastelekuen eta garajeen behin-behineko eta behin-betiko kalifikazioa *etxebizitza babestu tasatu* gisa izatea proposatzen zen. Alkateak aipatu zuen Erregistroak eskatzen dituen betebeharrak egin beharko dituztela. Behin-behineko eta behin-betiko kalifikazioa batera onartu ziren EAJkoen aldeko 5 botoekin. Besteak abstenitu egin zuten.

LABUR

Magoa

Haurrentzako magia emanaldia izango da igandean arratsaldeko 17:00etan kultur etxean. Magia eta umorea bateratzen dituen ikuskizuna eskainiko du Angel Magoak 5 eta 14 urte bitarteko haurrentzat.

Bizkaira

Hilaren 27an talde bat antolatu nahi du Udalak Gernika, Mundaka eta Bermeo bisitatzeko. Joan nahi izanez gero Kutxako 2101 0027 31 0004156055 kontuan 30 euro sartu behar dira, eta, izena ematera koan, agiria aurkeztu urriaren 23a baino lehen.

Obrak errepidean

Illarramendi eta Aia arteko errepidea konponduko dute datozen asteotan eta, dagoeneko, hormigoizko ubidea egiten ari dira ertzetik datorren urabideratzeko. Horrez gain, hamar kutxeta berri egingo dira eta hiru lekutan tutuak jarri, drenatze-sistema bermatzeko.

Dolua hizpide

Afektu dolu mota diferenteen gaineko hitzaldia antolatu du Kutxak Goiz Argin, hilaren 22an 16:30ean. Izarne Lizaso hizlariak landuko duen gaia hau da: zenbait gertaeraren aurrean afektudolua nola bideratu.

Bigarrenen irabazle

Asturiasen jokaturako Angliru lasterketa irabazi zuen Nerea Amilibiak hilaren 10ean. 1:23:00 denboran egin zituen 13 kilometroak, aurreko markari 6 minutu kenduz. Gustura dagoela esan digu eta gogorra egin zitzaiola lasterketa.

AIAKO LEIHOA

Historiako azterketa, literatur sari

Esango duzue zer erlazio duten hemengoian jarri ditudan bi gauzek. Bada, seguruenik pentsatzen duzuen baina korapilatsua goa izango da batetik besterainoko bidea eta saiatuko naiz azaltzen.

2006ko azaroaren 17an, ostirala, hurrengo astelehenean historiako azterketa genuela esan zigutenean. Huescara joateko asmoa nuen basurdetara, baina azterketa prestatzeko denborarik izango ez nuenez, Aian geratu nintzen. Igande goizean, azeritara joan nintzen, eta horra hor nire ustekabea: goiz erdia pasa ondoren, azeri bat etorri zitzaidan begien bistara. Bi aldiz pentsatu gabe egin nion tiro, lurrean utziz. Egun hartako pasadizoak ez zitzaizkidan inoiz ahaztuko.

Handik hilabete batzuetara euskarako irakasleak narrazio testu bat egiteko eskatu zigun, eta nik lehendik egin nuen idazlan fantastiko bat eraman nion. Nota jasotzean, 10 zela esan zidan, baina ipuin hori nonbait irakurria zuela eta ebaluazio bukaerarako ekartzen bazidan 0a jarriko zidala. Handik denbora batera beste idazlan bat egiteko agindu zigun, eta

Huescara joateko asmoa nuen basurdetara, baina azterketa prestatzeko, Aian geratu nintzen

nik berriz aurrekoan bezalakorik gerta ez zedin, azeria bota nueneko idatzi nion. Nahiz eta urte eta hilabete batzuk igaro, orduan gertatu izan balitz bezala gogoratzen nintzen orduko detaile txikienez ere; beraz, euskalki guztietako hiztegi pixka bat sartu, herriko hitz batzuk hemendik eta beste lore batzuk handik, amaitu nuen idatzia. Entregatzerakoan

...ipuin hori nonbait irakurria zuela eta, ekartzen bazidan, 0a jarriko zidala esan zidan irakasleak

esan ere egin nion horrelakorik ez zuela inon bilatuko. Nota jasotzerakoan, 10 ikusi nuen eta, gainera, irakasleak txapelketaren batera aurkeztera animatu ninduen. KARKARAN azaltzen den gazteen-tzako literatur sariaren iragarkia ikusi nuenean, bi aldiz pentsatu gabe bidali nuen.

Elik berri ona ematerako, ahaztua nengoen idazlanaz; bigarren edo hirugarren egin nuela esan zidan zorionak emanaz. Beraz, geratutako egunean Oriora jaitsi eta han jaso nuen saria, titulua eta 150 euro, ezta txarra!

Euskara indartzeko txapelketa horiek garrantzitsuak dira, eta gazte guztiak animatzen ditut parte hartzera.

JON ANDER AZPIROZ

TXOKOAK ETA JENDEA



Garai bateko Domund eguna

1969. urtean ateratako argazkia duzue hau eta, atzean, orduko frontoiaren teilatua ikusten da. Ez zen inauteri garaia, Domund eguna baizik. Eltxetxoetan biltzen zen dirua Txinako ume pobreentzat zela esaten zenez, horrela jazten ziren txikiak eskean hasi aurretik.

Atzetik eta ezkerretik hasita, hauek dituzue argazkian agertzen diren lagunak:

Iñigo Eizagirre, Rita Aldai, Gemma Eizmendi, Eli Lasa eta Jose Mari Orbegozo. Aurrean, Gemma Orbegozo eta Jose Manuel Lasa.


*Zenbait urte
Udaletik kanpo
izan ondoren, hiru
zinegotzi lortu
zituen ezker
abertzaleak iazko
hauteskundeetan
Orion. Ordutik
urte eta erdi pasa
denean, zein lan
duten, nolako
egoera duten,
udaletxeko
martxa...
errepasatu ditugu
Karmele
Belaskorekin.*

MIKEL ARANZABAL ETA
LORE BERASALUZE

Lau urte pasatxo Udale-
tik kanpo egon ondo-
ren, bada urte eta erdi
itzuli zaretela. Zein da zuen
balorazioa?

Hainbeste urtetako hutsu-
nearen ondoren, Udalera itzuli
garenean, EAJ alderdiaren
harrokeria nabaritu dugu.
Nahi dutena, komeni zaien
eran egiten da; gainontzeko
alderdiekin eta, jakina, herria-
rekin ezertarako kontatu gabe.
Udala erakunde itxia izan da
orain dela gutxi arte eta gure
lana pixka bat irekitzea da.
Horixe agindu genion herria-
ri hauteskunde aurretik eta
horretan ari gara.

Gardentasun falta ikara-
garria ere sumatu dugu hasie-
ratik, bai funtzionamenduan,
bai kontuetan... Informazio
eske joanez gero, detektibe-
en moduan ibili behar izaten
dugu, beti teknikoen atzetik,
—langile horietako batzuek ez
dute, orokorrean, lana erraz-
ten, lehenengo hitza gero edo
beranduago izaten da— eta,



KARKARA

KARMELE BELASKO | ORIOKO EZKER ABERTZALEKO UDAL TALDEKO ZINEGOTZIA

“Udala herriari
zabaltzen ari gara,
hori da helburua”

zoritzarrez, argitu edo kaleratu nahi ditugun datuak susmagarriak badira, alkatearen onspena dutenenean bakarrik ematen dizkigute.

Zuek Udalean izanda aldatu al da egoera?

Baietz esango nuke. Poli-ki ari gara lanean, ohiturak aldatzea zaila baita. Izan ere, Udala aspalditik ari da mar-txan, baina herriari —eragi-leei, elkarteei, gazteei, mendizaleei, kirolariei... denei— zabaltzen ari gara, bertan egi-ten den lana ezagutarazten. Gainera, uste dut beste alderdiei ere eragiten diegula, herriaren erreferentzia zuze-na garela. Ez dugu monopoli-rik nahi, denon artean ari gara lanean.

Guk eztabaidatu egiten dugu eta orain arte ez zego-en horretarako aukerarik, ezta ahalmenik ere. EAJk erabate-ko gehiengoa zuen eta berek hartzen zituzten erabakiak, bizpahiru lagunen artean. Guk gure lan egiteko era eta martxa jarri ditugu; gauzak garbi gustatzen zaizkigu: ezta-baidatu behar bada, eragilei eta herritarreigaldetu, infor-mazioa egiaztatu... beste erritmo bat ezarri nahi dugu, aipatutakoa egiteko denbora izan dezagun, bai zinegotziok eta baita herritarrek ere. Hainbat hautabide egon daitezke eta denon artean erabaki behar da zein den egokiena.

Azpmarratzekoa da, bai-ta ere, egun udalbatzarretan izaten den jakin-mina ere. Aurreko legealdian jende gutxi etortzen zen; orain, berriz, alderantzizkoa gertatzen da, eta gai zehatzetan, Muntoko planaz hitz egin zenean, esaterako, udalbatzar aretoa bete egiten da. Oso garrantzitsua da hori, herriak alderdi guz-tien iritzia jakin nahi duela adierazten duelako. Herrita-rren hitza ezinbestekoa izan da aldaketa martxan jarri behar dela konturatzeko.

Kargu publiko izateak alda-ketarik ekarri al dizu bizi-tzan?

Bai eta ez. Lehen eskola-ko zuzendaria nintzelako den-

bora gutxi nuen, eta orain ere berdintsu. Hori bai, presioa oso ezberdina da; batzuetan jasangaitza. Ez ditut onartzen iruzurrak, gezurrak eta egu-nero, zenbait gaitan, guri barre egitea. Dokumentu bat sudur-ren aurrean dagoela jakinda, hor dagoela ukatzea ezin dut eraman.

Zein harreman duzue gai-nontzeko alderdiekin?

Denborarekin harrema-nak aldatuz joan dira. Hauteskundeen hurrengo egune-tan oposizioan geundenok elkarrekin lanean arituko ginela adostu genuen, baina Udaleko dinamika berak eta elkar ez ezagutzeak gure arte-ko lotura hautsi zuen.

Azkenean, alkateak opo-sizio osoa batzeko meritua izan du. Beraz, gure artean diferentziak baditugun arren, ondo konpontzen gara, oro-korrean. Eusko Alkartasunak ere ordezkaria aldatu du, eta oraingoarekin beste *feeling* bat daukagu eta epe motze-an gauzak asko aldatuko diren esperantza ere bai. Izan ere, Cotadok legealdi batzuk baze-ramatzen Udalean eta uste dugu oposizioa egitea oso zai-la zuela.

EAJrekin ere eztabaidatzea eta ados jartzea lortu dugu batzuetan, nahiz eta iritzi era-bat ezberdinetatik abiatu. Hala ere, *adostasuna* hitza gehiegi erabiltzen da, batez ere gero praktikan jarriko ez dela jakinda. Jeltzaleekin ondo konpontzeko bide luzea dau-kagu egiteko, Udala berea dela pentsatzen dute eta.

Zein dira helburuak?

Orio ezkerretikeraiki nahi dugu —eraikuntzan, herri-harremanetan, hezkun-tzan...— bai Udalari dagoz-kion ekimenetan eta baita politikan ere.

Orio herri orekatua izatea nahi dugu: esparru guztiak berdin tratatzea —porlana ez hobestea—, herriaren gastuak arduraz jaitsi edo mantent-zea, lehenetsunak jarri eta horiek herritarrekin erabaki-tzea... Azken finean, Udal her-rikoia nahi dugu.



Zein proiektu dituzue herria-rentzat?

Herritarrentzako etxeak nahi ditugu. Diagnostiko baten bitartez, hutsik dauden etxebizitzak aztertu eta mer-katuratu nahi ditugu, alokai-ru merkean jarri eta herrita-rren eskura. Iaz ikerketa hori egiteko diru partida lortzen

saiatu ginen aurrekontuetan, baina ez zen proposamena onartu eta berriz saiaturako gara aurten.

Enpleguaren inguruko azterketa ere egin nahi genu-ke, alor horretan oriotarren egoera zein den jakiteko. Kri-siaz asko hitz egiten den egu-netan beharrezkoa da.



KARKARA

Industria ere suspertu nahi dugu. Aizperroko poligonoak herriaren aberastasuna —diru eta lan iturria litzateke— ekar lezake, ondo kudeatzen bada. Iaz, gune horren ezaugarriak aztertzeko diagnosis egitea onartu zen eta datorren hilabetean hasiko dira herriko eta inguruko enpresei egingo

zaizkien galdeketak. Emaitzak hiruzpalau hilabetean izango ditugu esku artean. Momentuz, industriagunea jartzeko hitzarmena sinatu dute lur jabeek eta Udalak.

Arrantzari dagokionez, lanean jarriko ginela adierazten zuen mozioa onartu zen iaz, baina bere horretan dago,

geldirik. Krisi larrian dagoen sektorea da eta Udalak erantzun bat eman behar du.

Proiektu handiena herriko zerbitzu eta eraikinak egoera onean mantentzea da. Frontoia, adibidez, zahartzen utzi da, itxi eta beste berri bat egiteko. Ez gatoz bat irtenbide horrekin, gauzak zaindu eta

kontu egin behar dira. Proiektu gehiago ditugu, baina ezin dira denak aipatu.

Gazteak, berriz, gaztetxealortzeko bidean direla dirudi.

Irailaren 26an gaztetxearen gaia muturreko egoerara iritsi zen eta alkatea eta alkateordea desagertuta zeuden.

UDALBATZARRAK

“Muntoko planaz hitz egin zenean, esaterako, udalbatzar aretoa bete egin zen. Oso garrantzitsua da hori, herriak alderdi guztien iritzia jakin nahi duela adierazten duelako”

INDUSTRIA

“Industria ere suspertu nahi dugu. Aizperroko poligonoak herriaren aberastasuna —diru eta lan iturria litzateke— ekar lezake, ondo kudeatzen bada”

GAZTEAK

“Oriok oso gauza gutxi ditu gazteari eskaintzeko eta horri irtenbidea emateko beren burua eskaintzea onuragarria da denontzat. Politikook kudeatzaileak gara, gaztek erakutsiko dute zer nolako bideragarritasuna duen gaztetxeak”

BILERAK

“Batzordeburu garen kasuetan bilerak irekiak eta parte hartzaileak izan daitezten saiatuko gara. Herritarrok aurrekontuak zer diren eta nola bideratzen diren hausnartu beharko genuke”

LEGEZ KANPO

“Zinegotzi karguak kenduz gero, herriak erantzun beharko lukeela uste dugu... Gu legearen barruan gaude, herriak hala erabaki duelako. Politikoki bigarren indarra garelako kontuan hartu behar da”

Gazteek alderdi ia guztiak —denak, EAJ izan ezik— bildu zituzten berekin batera gaiari heltzeko. Etxeluzeko jabearekin hitz egin ondoren gaztetxearen plangintza onartu zen: Udalaren gehiengoak gazteen eskakizunak onartzen ditu eta alokairua adostua dago. Gaztedia, Festak eta Kultura batzorde informatzailatik pasa eta Hazienda Batzordera eramango da, eta bertan gaztetxeari aurrekontuetan partida bat esleitzea onartu beharko da, aurrera jarraitzeko. Baldintzak ere adostu beharko lirateke: konponketak noren esku egongo diren, kontratua noiz sinatu... Oriok oso gauza gutxi ditu gazteari eskaintzeko eta horri irtenbidea emateko beren burua eskaintzea onuraragarria da denontzat. Politikok kudeatzaileak gara, gazteak erakutsiko dute zer nolako bideragarritasuna duen gaztetxeak. Ez da gastu bat, inbertsioa da. Bi hitzetan: herri bat, gaztetxe bat.

Aurrekontuak ere badatoz. Joan den urtean ez genuen aurrekontuak prestatzeko behar adina denbora izan. EAJk bereak listo zituen, aurrekoaren ia kopia baitzen, eta gainontzeko ez zitzaigun kasurik egin.

Aurten hari beretik tiraka jarraituko dugulanean: herriko taldeekin bilduko gara, hitz egin, aurkezten dutena jaso eta Udalera eramateko. Urtean hainbat foro sortu dira —gazteena eta kultur eragileena, adibidez— eta aurrekontuen berri izan nahi dutela adierazi dute. Albiste ona da hori, herritarren interesa piztu dela adierazten du eta. Batzordeburu garen kasuetan bilerak irekiak eta parte hartzaileak izan daitezten saiatuko gara. Herritarrok aurrekontuak zer diren eta nola bideratzen diren hausnartu beharko genuke.

Lan asko dago oraindik egiteko, zirriborroa egiteko baitago Udalean, batzordeetan aurrekontuez hitz egiten hastekoak gara.

Herriko ikastetxeekin bil-

tzeko hitzordua ere jarrita daukagu. Gure agenda osatua daukagu, ez gaude geldirik, kalean gabiltza herritarren beharrak aztertzen eta lan-tzen.

Zeresan handia ematen ari den beste gaia da Muntoko Plana. Herri galdeketa ere eskatzen zen. Izan al da aldataririk?

Aztertzen ari gara beste zerbait egin dezakegun, baina oraingoz ez da aldataririk izan. Arkupetik eta Ezker Batuatik proposamenakegon, badaude eta horiek aztertzen ari gara. Gaia ahalik eta egokien kudeatzen saiatzen ari gara, baina katramila handia sortu da: alde batetik etxebizitzak daude, %20 babes ofizialekoak. Inmobiliariari kantitate hori handitzeko eskatu genion, baina ezetza jaso genuen. Eroski ere hor dago eta tartean Ikastola; plan berean nahita sartu zuten eta nahaste handia eragin du horrek. Izan ere, uda aurretik lurrak lehenbailehen lagatzeko ados jarri ginen, ikastolak prozesua azkartzea eskatzen baitzuen. Lur jabeek lurrak emateko agiriak sinatu zituzten. Politikoak, ordea, ez ginen gai izan arlo ekonomikoan bat egiteko.

Eta nola daude orain negoziaketak?

Alderdi guztiei asmoen berri eman ondoren, Ikastola, beharrak ikusita, eraikitzen hasi zen, baimena iritsi arte zain egon gabe. Ondorioz, PSOE-EEK salaketa jarri zuen. Orain korapiloa askatu nahian gabiltza, batekin eta bestearekin hitz eginez, baina EAJk daukan itxitasunarengatik ez da askatu, zorritzarez, Muntoko Plana dena batera joatea nahi baitu, eta bost axola zaio Ikastolaren eta bertako ikasleena eta gurasoen egoera.

Nola ikusten duzue KARKARA?

Herriari irekita dagoen komunikabidea iruditzen zaigu. Hala ere, ez gara beti konforme egon eta gure kexak helarazi genizkizuen udan. Egokia ikusten dugu egiten



duzuen lana eta uste dugu Orioko erreferente garbia dela aldizkaria, herriko gaiak kaleratzeko, eztabaidatzeko... Euskara sustatzeko oso tresna gutxi zeuden garai batean, euskara bultzatzeko sortutako ideia piloto bat izan zen. Ibilbide luzea egin du eta bultzatu eta zabaldu behar den proiektua da egun. Herritarrok herritarrona sentitzen dugu eta oso positiboa da hori. Herria KARKARARIK gabe ikusten ez badugu ere —hala adierazi diegu gainontzeko alderdiei ere—, desagertuko balitz, beste komunikabide bat sortu beharko litzateke, utziko lukeen hutsunea betetzeko.

Orion euskararen egoera nola ikusten duzue?

Egun batez, sozialistarekin

euskararen inguruko eztabaida izan genuen: Espainian gaztelania batzorderik ez dagoela, hemen, aldiz, bada-goela euskararena eta horrek zerbait esan nahi duela, euskara zaindu, bultzatu eta landu behar dela. Orion %70-75ak euskaraz hitz egiten dugun arren, lan horretan jarraitu behar dugu, euskara haz dadin. Egoera ez da txarra gure herrian, baina hobetu liteke, dudarik gabe.

Egungo gazteek euskaraz ikasteko eta bizitzeko aukera izan dute eta barneratua dute. Baina beste egoera bat sortu da, kanpotar asko etorri baita azken urteotan eta gure hizkuntza erakutsi behar diegu, ez daitezela gaztelera bakarrik erabiltzera ohitu. Euskararen, gure hizkuntzaren,



beharra sentiarazi behar diegu. Hala ere, geronengandik hasi behar dugu, euskaldunok euskaraz bizi behar dugula ulertu eta barneratu behar dugu, euskara erabili behar dugu, ez ikasi bakarrik, gure buruari zor diogulako, etorkizunean euskara edozein esparrutan erabil dadin.

Euskarari lehentasuna eman behar zaio, normalizatzen asmatzen ez duen hizkuntza delako. UEMAn sartuta dago Orioko Udala eta euskarako arautegia badaukagu eta askotan ez diogu kasurik egiten.

Udal gaiak albo batera utziz, irailean EAE alderdia legez kanpo utzizuten. Zertan eragin dizue horrek?

Alde batetik, ezin dugu

alderdi bezala hitz egin, ezta ekimen publikorik, manifestaziorik egin ere. Babes hori galdu dugu.

Bestalde, zinegotzi bezala, ez dugu eraginik nabaritu, oraingoz, karguak pertsonalak baitira. Legez kanporatzeak ez digu eragotziko gure lanarekin aurrera egitea. Nola? Beste talde bat sortu beharko dugu, seguru asko. Hala ere, gutako batek kargua utziko balu, zerrendako hurrengoak ez lukegu ordezkatzeko aukerarik izango. Hauteskunde garain ezker abertzalearekiko duintasuna erakutsi zuen alderdi bakarra izan zen EAE eta asko zor diogu.

Eta kargua kenduz gero, zer?

Apartheid-aren eta salbuespen egoeraren barruan

kapitulu bat gehiago litzateke, errepresioaren bidean beste pausu kualitatibo bat.

Hori gertatuko balitz, herriak erantzun beharko lukeela uste dugu; herritarrek altxa beharko lukete ahotsa.

Gu legearen barruan gauden, herriak hala erabaki duelako. Kontutan hartu behar da, politikoki, Orioko Udaleko bigarren indarra garelako ezker abertzalekoak.

Martxoan hauteskundeak datoz...

Egon, egongo gara, ziur. Legalki aurkezterik izango dugun, ordea, ez dago jakiterik. Helburua garbi daukagu, marko demokratikoa lortzea: erabakitze eskubidea eta lurraldetasuna. Gure proposamena hor egongo da.

AZKEN TXANPA

Liburu bat: *Las carabinas de Gastibeltsa*, Mark Legasserena.

Disko bat, talde bat, abesti bat: Pantxoa Carrere eta Pello Ospitalen azken diskoa; Oskorri —folka asko gustatzen zait—; eta Benito Lertxundiren Baldorba.

Egunkari bat: Hitzia.

Amets bat: Euskal Herri independentea.

Miresten duzun pertsona: Enrike III, Nafarroako erregea.

Udala: Libreagoa.

EAE-ANV: Miresgarria eta duina.

Euskal Herria: Euskotarrentzat.

Herriko txoko bat: Hondartza.

Urtaro bat: Uda.

ADARRETATIK HELDUTA

Zero hamasei

Hamasei gatazka konpontzeko gai omen gara. Hamasei kritiken aurrean oldartzeko eta eztabaidatzeko gaitasuna daukagu. Hamasei proiektu berri garatzeko abilezia dugu. Hamasei...

Proiektu berriak, gatazka eta kritikak dira komunikabideetan hizpide; beti berdinak, ordea. Ahantziak ditugu *pitbull* txakur beldurgarrien horzkadak, pateran etorritako etorkin gaixoen aurpegiak, galleta beltze osatutako itsasaldea, eta laster ahaztuko dugu *spanair*-eko pilotuaren izena ere.

Kalean igogailuko elkarriketez gain, betikoa, bakoitzak berea. Telesail berriko protagonistaren edertasunaz aritzen gara. Horren bizitzaz, gureaz baino gehiago dakigu eta bere arazoak gure bihurtzen ditugu. Ezagutu ere egiten ez dugun arren.

Astelehenetik aurrera, asteburuko juerga komentatzen dugu, hurrengoa buruan. Energia guztiak ahalik eta ondoen pasako dugun aisia antolatzen ematen ditugu; bakoitzak berea, ordea.

Kirolaz ere jarduten dugu. Euskaldunon estereotipoa omen da hotza izatea; hori aztertzen denbora pasa duenik ere bada. Sentimenduak agertzen dira, hala ere, partida galdu, irabazi... barre, negar. Gure taldea delako eta maite dugulako, nola ez. Azken aldian, egoera ekonomikoaz ere aritu gara. Dena garestiegia dela, horre-



BEÑAT SOLABERRIETA
HEZITZAILEA

Egunero entzuten dugu emakumeen kontrako indarkeriarekin lotutako notziaren bat. Ohituta gaude, ohituta animalia horiek egin dezaketen edozein astakeriarekin

la ez lukeela izan behar, aberatsak aberasten, eta egoera jasanezina nola igaroko dugun hausnartzen. Gu baino okerrago denik existituko ez balitz bezala. Ezkerreko besoa altxatu, baina eskuintekoa, bada ez bada ere, poltsikoan ondo gordeta.

Egunero entzuten dugu emakumeen kontrako indarkeriarekin lotutako notziaren bat. Ohituta gaude, ohituta animalia horiek egin dezaketen edozein astakeriarekin. Datuez gain, morboa bilatzen da. Berezia dena da gaur notizia, eta emakume jipoitua ez da notizia, ez bada desberdina. Harrigarria, baina egia.

Telesaileko protagonistaren arazoak fikzio dira, emakume hauenak ez, ordea, gure interesa behar dute, ez morboa. Telesaileko pertsonaiaren edertasunaz jabetzen gara, baina emakume hauen edertasunaz, nor?

Bakoitzak aisia antolatzaz gain, indarrak bildu eta zerbait egin genezake egoerari aurre egiteko, salatze, ezikusiarrena ez egiteko, behintzat. Bizitzako egutegi, ordutegi antolatuan beste lan bat gehitzeko. Maitasuna, gure kirol taldeari eskaini ordez, emakume indartsu hauei eskaini diezaiekegu. Gogor bizi behar izaten dute, eta egiazko muxu eta lazta-nak inoiz jaso gabeak dira. Inoiz maitatu gabeak dira.

Zero hamasei telefonoa. Hori izan dadila egoera laggarriari aurre egiteko tresnetako bat. Gizartearen bilakaeran dago gakoa. Horretarako, gure hizketaldietatik hastea proposatzen dut, egoeraren jabetze egoki bat, sentibilizazioa, azterketa sakona. Zuentzat guztiontzat, hamasei muxu, hamasei besarkada.

NIRE HONETAN

Jorge gurea

Dakitenek diote Jorge Oteiza erraldoi bat izan dela eskultoreen artean; haren talentuaren handiak itzal egiten duela oraindik ere, eta artisten belaunaldi berriei urrats sendoz markatutako bidea zabaldu diela. Hala diote eta ez dut zalantzan jartzen, ezjakin totala bainaiz eskultura gaiez (ere).

Urruti sentitzen naiz, hala ere, Oteiza aldarean gurtzeko batzuk erakusten duten joeratik eta nahi nuke haren jaiotzaren mendeurrenean antolatu diren ekitaldiek jainkotu gabeko Oteiza baten irudia zabaltzen laguntzea: euskararik jakin gabe euskal arimaren esentziaz funts gutxiko arinkeriak esan eta argitaratzen zituen Oteiza hura gogora ekartzea, esate baterako; edo euskal filologiari buruzko liburu deliranteak idazten zituena. Horiek, eta Jorgeren beste hamaika kontraesan eta *zikin erantsiek* (Anjel Lertxundi idazle oriotarraren hitzetan esateko) ez diote artistari ezer kentzen; baina begien bistan uzten dute alderdi humanoago bat, hurreragoko bat, perfekzio jainkotiarretik urruti dagoena eta —eta, hain zuzen ere, horrexegatik— gureago, maitagarriago, izan daitekeena.

JABI ZABALETA

Orioko Ogia

ORIOGI

OPIL OKINDEGIA
Frontoi ondoan
Ifnoa: 943 83 01 89

PERTSIANAK

AKO MAZ

Aluminio, PVC
Venezianak
Motorrak...

18.933.19.01 Nazkorta 600 70 92 77

SOLOZABAL
autoeskola

Eusko Gudari, 30-1. ez
telefon: 943 83 08 12

MOILA BAZTERRETIK

Diruzaleen krisia



AIORA LARRAÑAGA

Gezurra badirudi ere atal honetarako idazten dudana lehen artikulua hau lana ematen ari zait. Eguna osoa ordenadorearen aurrean pasatzen dut besteek esandakoak jaso eta zuei gertatu dena jakinarazi nahian. Eta

zertarako? Nire iritzia emateko aukera dudanean, ezin martxa hartuta geratzeko.

Aurkezpentxo bat egitea zen nire hasierako asmoa, baina KARKARAREN iraileko zenbakian niri buruzko albistea argitaratu zenetik, ezin esan Aiora Larrañaga izena dudarik; ezta kazetaria naizenik ere. Beraz, idazlea idazten duenarengatik azagutzen denez, azkenaldian hitzetik hortzera dabilengai bati buruz jardungo naiz. Jokinek erraz utzi didala aitortu behar dut, bera hasi baitzen krisi ekonomikoari buruz hizketan.

Egia esanda gai honen inguruan dudana iritzia zue-tako edozeinek izan dezakeena bezalakoa da, ez baina ekonomialaria. Hala ere, ideiak argi ditut. Ez da aditua izan behar krisi hau aberatsek

sortutakoa dela ohartzeko. 2003an burtsa goraka hasi zenetik milioiak eta milioiak irabazi dituzten horiena da. Ordaindu ezin zituzten hipotekak herritarrei ematen zizkieten bitartean, gezurrezko diruarekin negoziatzen zuten horiena. Ez gaitetzen nahastu, burtsan jokatzeko edota herritarren ilusioekin espekulatzeko, loterian jokatzeko bezalakoa da, lanik egin gabe dirua irabazteko erabiltzen baitute askok. Baina, igotzen den guztiak jaitsi behar duela esaten denez, 5 urtetan dirua barra-barra irabazi duten horiei oraingoan galtzea tokatu zaie. Nork esan du joko horretan galdu ezin denik? Nik uste dut azken urte hauetan askori diru errazak dakartzan arriskuak ahaztu zaizkiela eta garai txarrak iritsi direnean, eure-

Ez da aditua izan behar krisi hau aberatsek sortutakoa dela ohartzeko. 2003an burtsa goraka hasi zenetik milioiak eta milioiak irabazi dituzten horiena da

na den arazoa herritar guztiena egin nahi izan dutela; eta baita lortu ere!

Puf... barruan nuen guztia bota eta lasai geratu naiz. Ohituko zarete, bidegabe-riak gorroto ditudanez ezin baitiot nire buruari eutsi.

WERTZETA
PATXI OLIDEN
PASTELITAT

Hemengo haragia.
Etxeko produktuek: tripaiki, odakli, trekorra, txarizo, kroketak...

PATXI OLIDEN

Eusko Gudari, 25 Tel. 943 83 00 10

FISIOTERAPIA Gaitortze Arloko eta Neurketa Murrizteko
NUTRIZIONISTA Gaitortze Arloko

sinergia investigación
fisioterapia

Ibai ondo, 1, behe-sina | ORIO | 943 13 05 77 - 665 71 85 95

Orioko Herri Ikastola

Guraso Kooperatiba
ABESLARI KALEA, 8
TEL: 943 83 47 04
FAX: 943 13 09 38
orio@ikastola.net
www.oriokoikastola.net

AMILIBIA
ONTZIOLEK, S. L.

lari portuaren proiektu eta instalazioak

guztira irabazteko iruztin-entzuleak

Olaskoagacía auzoa, 52
34 943 83 08 29
faxa 34 943 89 40 81
amilibia@amilibia.com
www.amilibia.com

uranga
autozerbitzua

Aliprox

Eusko Gudari Kalea 13-15
ORIO
943 83 38 75

A&E
The Academy of English

Justo kalea 3, Zarautz | Ibai Ondo pl. 8 Orio

Tel. 943 00 42 44
943 83 51 91

Igo zaitoz haize berrietara!



Galeerna I

943890416 - 677149932
galeerna.orio@hotmail.com

ITZALA

*kartzeta jokatzeko
apiribide*

tel. 943 83 12 59

KOLON TXIKI

kolon txiki
JULES KOLA



Herriko Enparantza, 4
ORIO
Tel. 943 83 00 44



islada
estetika zentroa

Sheila De Miguel - Saray Cendoya

Kalearen kalera, 2 behean Orrio auzoan
Tel. 943 133 856
e-maila: isladaorio@hotmail.com



**ASADOR
XIXARIO**

Estreko Galarum Kalea, 1
Tel. 943 83 00 00

ARKAITZ
Taberna

Pinxtoak,
plater konbinatuak
eta ogitarleko mundialak

ABESILARI KALEA, 1 Tel. 943 83 16 57

Gabon
TABERNA

plater konbinatuak eta pinxtoak

Tfnua: 943 83 06 09

Goizeko
KAFETEGIA

943 83 28 55

Aita Leizola, 33 behean - ORIO
Autobus parada ondoan



**Gure
Txoko**
Arripa Zabor

LURDES
MERKATUAK



Eusko Gudari, 4 - Tel. 943 83 00 24

Allianz

Marigre Zaldia
aseguru agentea

Ibil Ordo, 10 behe-oina
telefonoa: 943 13 47 60
faxa: 943 83 57 52
e-maila: zaldia.zaldiazuz.paj@allianz.es



INDO

Garraio frigorifikoa
NAZIONALA ETA NAZIOARTEKOA

Olaskoegia, 12 - Tel. 943 894 024 - Fax. 943 130 144 AIA-ORIO

MA*NA lokutorioa

guztira 4 lokalak: Orio (Orrio), jentilak, abuztuak...
herriko auzo (abuztuak, herrikoak, auzoak) + mugakera ondoan +
mugakera ondoan + herriko lokalak + faxa +
herrikoak + abuztuak

Enbain enparantza, 1 Tel./Fax: 943 13 50 82
20810 ORIO (Gipuzkoa) loci-mana@euskalnet.net



kutxa

ODITZ

*Orrio auzoko neskak
guztira 4 lokalak*

tel. 943 83 00 89

SEGA
herrikoak

*eskola, herrikoak
jantzerak*

Santio Erreka auzoa
Tfnua: 943 83 07 16



aroztegia
MIRANDA
(ak. h. orrio)

farina eta lortu, eskalera...
behar diren arto lanak
espejo-itxuratu

Seduzeta bidex. 2 - 660 42 52 70 - SARAUTZ

ile apaindegia
MARIJO



Neska eta
mutilentzat

Eusko Gudari, 8 - bajo
Tel. 943 13 47 29
ORIO



Euskal Jaiak behin egin ziren Orion

Ekainean egin ziren, sanpedrotako festak baino lehen eta egun batez herri osoa jantzi zen. Izugarrizko arrakasta izan omen zuen eta oso giro ederra sortu zen, alai-alai zebilen jendeaz kaleak bete zirenean: 1953ko urtea zen. Ez zen berriz horrelakorik egin Orion; baina, antza denez, hurrengo urtean, 1954an, Usurbilen izan omen ziren.

Horrela ibiliko ziren,

seguru asko, moilan jarrita fotografian agertzen diren neska gazteak. Amonduta daude denak, baina gaztetako bizipozari heltzen diote eta gustura ekarri dituzte gogora egun hartako giroa eta argazkia guretzat. Hauek dira, ezkerretik eskubira, goian:

M. Jesus Exposito, Begoña Sarasua, Josefina Arruti, Luis San Sebastian, Anita Alberdi, M. Luisa Lizaso, Nati Arruti.

Tartean markurtuta Antonita Arruti eta M. Karmen San Sebastian. Lurrean eserita, berriz, Karmen Aldaz, M. Luisa Aldaz eta Rosita Azurmendi.

ARGAZKIA ETA INFORMAZIOA:
M. JESUS EXPOSITO ETA
ELISABETE G. DE TXABARRI

Txoko honetan erakusteko moduko argazki zaharren bat baldin badaukazu, ekarri KARKARARA eta gustu handiz argitaratuko dugu, zuk ekarritakoa dela jarrita.

KARKARA

URANGA
burdindegia
Opari, menaje eta enrentak
Fer.uranga@euskalnet.net
Telefax: 943 832 36 Eusko Gudari, 3

URAITZ
Lurrintegia
Asanblajea
Eztabaitz - 943 83 16 97

TAILER MEKANIKOA
MANTEROLA S/L
TKORROKAK - BALBULAK

Santiago eztoa - 18 postakutria
Tel. 943 830 743
Fax. 943 134 634
E-mail: tmmanterola@euskalnet.net
20 810 ORIO - GIPUZKOA

TMM

AENOR
E
ESTRUTURA
ISO 9002

Esteroako balbula
AENOR kalitate ziurtagiriduna

KRITIKA



Euskal Herrian ez dira otxote asko izango: gutxiago hamalau lagunek osatutakoak.

KARKARA

...zorion zueri, osasun onarekin izan zaitetze...

Bejondeiela Egunsentia otxotekoei. Bejondeiela, bai horixe!

KARKARARAKO elkarrizketatu nituen egunetik galdera bera izan nuen buruan, haietako bati behin baino gehiagotan egina: Ez ote zarete inoiz animatuko abesti sorta bat grabatzera?

Sekula ez zidan tajuzko erantzunik eman: agian ez zutela nahikoa mailarik, ea nori interesatuko ote zitzaion... Astakeriarik ez esateko erantzuten nion beti. Denborak arrazoa eman didalakoan nago. Bai, ezta?

Kalean abesteko ohitura aspaldigalduta, interesgarria irizten nion egiten duten hori betiko jasota uzteari. Herriarrek nahi dutenean otxote jator honen arteaz gozatzeko aukera izan dezaten, zuzeneko emanaldiak noizbehinkako aukera bakarra izan gabe. Eta norberaren gustuetatik haratago, nolabaiteko ondare gisa, jakina. Berentzako eta herriarentzako.

Nire partetik, aitortu beharra dut hau dela osorik, hasi eta buka, entzun dudan estilo horretako lehen diskoa.

Gustura entzun, gainera.

Mamiari dagokionean, kantutegia abesti herrikoiekin osatu dute, ia osorik. Baina, hara sorpresa! Joxemari Lizasoren lau konposizio eta Manuel Lasarteren hitzak ere aurkituko ditu entzuleak hiru kantutan. Eta, oker ez banago, bi propio eginak. Benetako luxua sekula izan den bertsolari handienetako baten parte hartzea eduki izana. Tarteabukatzear, koardila hau zoriontzeko toki geratzen zait justu-justu. Zorionak eta segi horrela!

PATXI URANGA

IKASLEAK IDAZLE



AURORA MAKAZAGA |

DBHKO 4. MAILA

Paseoko argiak

Denok dugu gogoko, udan, afaldu ondoren, osteratxo bat ematera hondartzara joatea. Gainera, orain dugun paseo berri eta eder hori oso ondo prestatuta dago, bai oinezkoentzat eta baita txirrinduentzat ere.

Baina, errio bazterreko paseoan argiak falta dira gauez, eta beldur pixka bat ematen du bertatik pasatzeak. Zer esanik ez neguan, gaueko zazpiak aldera iluntzen baitu. Gainera, entrenamenduen ondoren Mendibeltz zelaitik etxera ilunpetan itzuli behar izaten dugu. Izan ere, ikastola berriko lanak direla eta itxita dago kiroldegi atzeko aparkalekua, eta ez zaigu paseotik edo Arrantzale kaletik bueltatzea besterik geratzen.

Hori dela eta, eskertuko genuke erriko paseoan argiak jartzea, herritar asko ibiltzen baita bertatik.

tel/fax: 943 89 00 69
Ezkerreko kalea, 4. 20.500 ZARAUZ

URBIDE

ITURGINTZA, BEROGINTZA
GASA, BAINU ERAKUSKETA

Sukalde eta bainuen erreformak

XANTI MUJIKA

Igeltseritza

699 46 76 21
943 13 10 37

Zaragueta Eskola Orio

telefonoa: 943 89 40 52
e-mail: 012137aa@hezkuritza.net

HANDIK ETA HEMENDIK

“

Emakumezkoak omen dira gehien irakurtzen dutenak, baina gizonezko batek ordezkatuko ditu aurtengo (Durangoko) azokako irakurleak. Emakumeak, irakurleenak izanagatik ere, ikusezin.”

ANJEL LERTXUNDI

Idazlea
Berria
2008/10/02

“Askok erabiltzen dute bakea hitza, baina ez dakite zerekin egiten den, ez dakite bakea zer kulturaren ondorio den eta zer alderdi jorratu behar diren posible izateko.”

BENITO LERTXUNDI

Musikaria
Zazpika
2008/10/12

OSPAKIZUNA



Laugarrenean, mutila

Jaime Abalos Campoy etxeko laugarrena izango da Adriana eta Jaime gurasoentzat. Txikiaren jaiotzak badu berezitasun bat, gainera. Izan ere 3 arreba ditu: 6 urteko Daniela, 4ko Aitana eta 2ko Martina. Familia ugaridunak ohikoak ez diren egunotan jaio da Abalos Campoytarren semea. Irailaren 25ean, munduratu zen hain zuzen ere, 3,230 kilorekin. Gurasoen esanetan, ezin kabitu daude etxeko guztiak; arrebak, batez ere.

ZORITXARRAK!



Eskopeteroei

Basoak udazken kolorez jantzen hasi orduko, urtero bezala, ireki da aurtengo ehiza denboraldia. Azken urteotan asko arautu da ehiza eta, horri esker, muga batzuk jarri zaizkie eskopeteroei. Gure mendietan, ehiza-zaleez gain, mendizale asko ibiltzen da (paseatzen, perretxikotan, jolasean, kirol egiten...) eta horrek nahitaez sortzen ditu gorabeherak horien eta ehiztarien artean.

Ehiztariei eskatu behar zaien minimoa da arauak errespetatzea; bestela, eskopetero kaskar batzuk dira eta gure zoriotxarrak merezi dituzte.

LUXARBE
Igeltseritza

Igeltseritza orokorra, denetarik egiten dugu.

Presupuestoak eskatu konpromisorik gabe

Lan txukuna eta merkea

Tel: 943 83 59 00

TANATORIO ZARAUZ
EUROFUNERARIAS TALDEA

Hileta eta zerbitzu orokorrak

- * Donostia eta probintziako ospitaleetan
- * Akloroko zerbitzua
- * Belatorio gelak
- * Koroiak, eskelak, tramitazioak...

Araba kalea, 35 Zarauz
Tel: 943 89 49 37 / Fax: 943 89 49 41
e-mail: hileria@tanatoriozarauz.net

Peñakaria eta estetika mirtoa

ZSS

- Tintak argiztatuz eta kolorezko naturalak
- Desleucizado eta irakurketa
- Arizak, esfoliantes
- Pedicura
- Depilazio

Sax. Bilboko, 2. Tel: 943 85 51 70

ZUMINTZA Le-apalindogia
narrak
pudak
makilak
depilazio berrak eta berriak

SOLARIUM **tel: 943 83 17 56**

Faroeko bakailaoa daukagu

ITSAS MENDI
gutzizak

Ezko Otxal, 5 Tel: 943 24 87 74 Oñe

XAPA ZAPATA KONPONKETAK

Laneguntan: 09:00 - 13:00 eta 16:00 - 19:00
Larunbaitan: 09:00 - 13:00
Herriko enperantza, Oñe

ORAIN DELA 25 URTE

Zumaiako trainerua jaun eta jabe Kontxa ondoren ere

Zumaiako ontziak jaun eta jabe izaten jarraitzen zuen, denboraldi bukaerako estropada guztiak irabazi baitzituen. Iraileko Kontxako estropada istilutsu haren ondoren, *El Corte Ingles Bandera* jokatzeko elkartu ziren, berriz, garai hartako lau ontzirik indartsuenak —Zumaia, Kaiku, Orio eta Santurtzi— Portugaleteko uretan, urriaren 2an. Bandera eta 250.000 pezetako saria zumaiarrek eraman zituzten etxera, bigarren izan zen Oriori 20 segundoko aldea aterata. Kaiku izan zen hirugarren, 20 minutu eta 23 segundoko denborarekin eta hirugarren kalean aritu zen Santurtzi laugarren, bizkaitarregandik 13 segundora.

Kontsolazio txandan, berriz, Zierbena izan zen aurrena, Iberiaren, Mundakaren eta Ondarroaren atzetik.

Castron jokatuak estropadan ere ordena bera izan zen: Zumaia aurrena, 19:59:1 denborarekin eta Orio bigarren, 10 segundora.

ERAILKETA

Urriaren 16an, 24 urteko Domingo Esnalek anaia zaharra Francisco erail zuen tiroz Oliden jatetxean, familiarekin—emaztearekin, bi seme-alabekin, arrebarekin eta koinatuarekin—afaltzen ari zela.

Gaeko bederatzia gertu

1983
URRIA

El Corte Ingles Bandera jokatzeko elkartu ziren orduko lau ontzirik indartsuenak. Bandera eta 250.000 pezetako saria zumaiarrek eraman zituzten

Gipuzkoako ikastolen jaia Donostian izan zen. Hiriburuko 15 ikastoletatik 11 zorretan zeuden eta haiei laguntzeko jaso zen dirua

zirela azaldu zen Domingo jatetxean eta eskuan zeraman eskopetarekin bi tiro egin zizkion, bertatik bertara, Fran-

ciscori eta zerraldo geratu zen, hantxe bertan. Erailketaren ondoren, hitz batzuk xuxurlatu zituen Domingok, baso bat ur eskatu zuen eta Guardia Zibilaren zain geratu zen Olidenean.

Urteetan bi anaian artean izandako liskarrak izan zitezkeela arrazoia adierazi zuen orduko prentsak.

TEKNOLOGIA BERRIAK

Bilbon egindako erakustazokan bitrozeramika plakadun sukalde elektrikoa eta garbigailu elektronikoa aurkeztu zituen lehen aldiz AEG marka alemaniarrek. Dardararik gabeko garbigailu berriari esker, arropa gehiago garbi zitezkeen batera eta arropa gutxi garbitzeko ere programa zitezkeen.

KILOMETROAK

Gipuzkoako ikastolen jaia Donostian izan zen duela 25 urte, urriaren 2an. Hiriburuko 15 ikastoletatik (Aitor-Bilintx, Amasorrain, Arantzazuko Ama, Axular, Barandiaran, Herri Ametsa, Ibai, Untzaurrondo, Ikasbide, Jakintza, Mariaren Bihotza, Orixe, Santo Tomas, Zurriola eta Lanbide Hezkuntza) 11k defizita zuten—585 milioiko zorra zuten—eta haiek laguntzeko antolatu zen Kilometroak. Guztira, laurogei bat mila lagun elkartu ziren eta 26 milioi pezeta bildu ziren.

JAIOTAKOAK

• Jaime Abalos Campoy, Orion, irailaren 25ean.

EZKONDUTAKOAK

• Jon Salsamendi Goñi eta Eba Mirones Sola, Orion, urriaren 14an.
• Izaro Peña Pagola eta Imanol Alberdi Azpiazu, Orion, urriaren 11n.
• Mirian Martikorena Segurola eta Joxean Goenaga Errondosoro, Orion, urriaren 11n.
• Ruben Hernandez Perez eta Cristina Moreno Gonzalez, Orion, urriaren 8an.

HILDAKOAK

• Luis Ramon Barandiaran Makazaga, Orion, urriaren 10ean. 65 urte.
• Josefina Uranga Irigoien, Orion, urriaren 8an. 90 urte.

Eskela edo urteurreneko gogoangarria KARKARAN jarri nahi baduzu, deitu gure telefonora:
943 83 15 27



ESKAINTZAK

Bosch 750 W

49,99€

Panasonic 32"

539,00 €

Eta gehiago

TIEN 21

SARASUA ERRETEGIA

Plater bereziak

Arrain zopa

Arrain eta haragi erreak

Eusko Gudari, 29

ORIO

Tel: 943 83 00 05 / 943 13 25 32

EKAIN ZUBIZARRETA | URRUZUNO LITERATUR LEHIAKETAN SARITUA

“Sarriago idazten hasiko naiz, datorren urtean itzultzeko”

Ekain Zubizarretaren *Itsas-enaren hegaldia* prosa lana Urruzuno literatur lehiaketako saridunen artean geratu da aurreneko. Lerrootara gazteak bizitako esperientzia ekarri digu.

Kontaiguzu enara horien hegaldia Urruzunora iritsi arte.

Lizardi institutuko irakasleak eskatutako idazlana zen izatez *Itsas-enaren hegaldia*. Maisuak ondo idatzita zegoela eta lehiaketaren batera aurkezteko esan zidanean, hasi zuen ipuinak Urruzunorako ibilbidea. Ez nuen lehiaketa hori ezagutzen eta ez nekien sari garrantzitsuak ematen dituela: Europako edozein txokotara bidaia, diru saria eta oroigarria. Aurkeztuko nintzela esan nion arren, neure burua konbentzitzeko neukan. Eskolan izandako elkarrizketaren berri aitari eman nionean etxean, dena martxan jartzeko agindu zidan eta Urruzunon bukatu zuten nire paperok.

Zer kontaktatu du istorioak?

Euskal Herriak bizi duen egoeraren metafora handi bat da, itsas-enara batek lehen pertsona kontaktua. Kaioak, berriz, gaizto paperean jarri ditut —halako itxura dute!— Oso gustura idatzi ditudan lerroak izan dira eta istorioa barruraino sartu zaidala aitortu behar dut.

Nola gogoratzen duzu saria zureazela esan zizuten unea?

Sorpresak hartu ninduen, egia esan, lehiaketaren kontua ahaztuta bainuen. Aitak eskola orduetan patrikako telefonora deitu zidan egun batez. Atsedendian pentsakor deitu nion, arraroa baitzen ordu haietan deitzea. Berehala



Urruzuno literatur lehiaketako oroigarria harro erakusten du Ekainek.

KARKARA

Euskal Herriak bizi duen egoeraren metafora handi bat da ipuina, itsas-enara batek lehen pertsona kontaktua

eman zidan berria: etxera Urruzunoko gutun bat iritsi zela, ezin izan ziola gutuna irekitzeko gogoari eutsi eta saritutako bat nintzela. Sinistu ezinik geratu nintzen.

Noiz jaso zenituen sariak?

Irailaren 4an joan ginen

Hainbeste toki eder ikusi ditugu Errumanian... ezin dezakedala horietan guztietan bizitakoa hemen kontatu

Gasteiza, Lakuara, oroigarria eta dirua jasotzera. Han bildu nintzen lehen aldiz gainerako sarituekin. Haien artean 10. iazko lehiaketan ere saria jasotakoak ziren eta, horietatik, hiruk 3. aldian zuten. Beraz, aurretik ere lagun giroa bazen.

Etaz moduzko esperientzia izan da Errumaniako bidaia?

Primerakoa. Hogei idazle, hiru begirale —tartean bidaia antolatzen zuten Xabi Paia— eta bi irakasle izan ginen bidaiari, irailaren 6tik 15era. Barriola lehiaketako irabazleak ere Errumanian ziren —hilaren 1etik 10era— eta bost eguneko haiekin batera ibili ginen txangoan.

Azer nolako egunak! Bukaresteko hotela eta inguruak ezagutu ondoren, gualdean, hegazkina hartu eta iparraldeko Maramuresera joan ginen. Baserriz jositako eremua da, gainontzekoarekin konparatuta txiropa, baina oso polita eta, orografia aldetik, Euskal Herriarekin antza handia duena. Europako egurrezko elizarik handiena dago bertan, Surdestiko eliza greko-katolikoa eta okerez bana go, 54 metroko garaiera du. Hainbeste toki eder ikusi ditugu —Itsaso Beltzeko Konstantza, Transilvania (Drakula kontearen lurraldea) Bukarest bera...— ezin dezakedala horietan guztietan bizitakoa hemen kontatu. Gainera, ondo mimatu gaituzte.

Eguneroko otorduak ere luzuzkoak izan dira. Dantza saioak, piano kontzertuak... eskaini zizkiguten jaten ari ginen bitartean, erregeen moduan. Jatetxeetan eskaile-rapeko edariak ateratzen zizkiguten, doan: ardoa, patarra... Egun horietan bai, algaraka ibili ginen.

Errepikatzen duzu, beraz?

Bidaiatik oso motibatuta etorri naiz eta sarriago idazten hasiko naiz, datorren urtean ere saria irabazi nahi dudalako. Hala ere, badakit zaila izango dela, oso maila handiko lehiaketa baita Urruzuno.

TREN ORDUTEGIAK

DONOSTIA - ZARAUTZ

Donostia	05:47	06:17	06:47	07:17	07:47	08:17	08:47	09:47	10:47	11:47	12:17	12:47	13:17	13:47
Aia-Orio	06:14	06:44	07:14	07:44	08:14	08:44	09:14	10:14	11:14	12:14	12:44	13:14	13:44	14:14
Zarautz	06:19	06:50	07:20	07:50	08:20	08:50	09:20	10:20	11:20	12:20	12:50	13:20	13:50	14:20

Donostia	14:17	14:47	15:17	15:47	16:17	16:47	17:17	17:47	18:17	18:47	19:17	19:47	20:47	21:47
Aia-Orio	14:44	15:14	15:44	16:14	16:44	17:14	17:44	18:14	18:44	19:14	19:44	20:14	21:14	22:14
Zarautz	14:50	15:20	15:50	16:20	16:50	17:20	17:50	18:20	18:50	19:20	19:50	20:20	21:20	22:20

ZARAUTZ - DONOSTIA

Zarautz	06:08	06:38	07:08	07:38	08:08	08:38	09:08	10:08	11:08	12:08	12:38	13:08	13:38	14:08
Aia-Orio	06:15	06:45	07:15	07:45	08:15	08:45	09:15	10:15	11:15	12:15	12:45	13:15	13:45	14:15
Donostia	06:39	07:09	07:39	08:09	08:39	09:09	09:39	10:39	11:39	12:39	13:09	13:39	14:09	14:39

Zarautz	14:38	15:08	15:38	16:08	16:38	17:08	17:38	18:08	18:38	19:09	19:38	20:09	21:09	22:09	22:38
Aia-Orio	14:45	15:15	15:45	16:15	16:45	17:15	17:45	18:15	18:45	19:15	19:45	20:15	21:15	22:15	22:45
Donostia	15:09	15:39	16:09	16:39	17:09	17:39	18:09	18:39	19:09	19:39	20:09	20:39	21:39	22:39	23:09

AUTOBUS ORDUTEGIAK

LANEGUNETAN

Donostia	Orio	Zarautz	Zarautz	Orio	Donostia
06:55	07:25	07:35	06:45	06:55	07:30
07:40	08:15	08:25	07:15	07:25	08:00
08:10	08:45	08:55	07:45	07:55	08:30
08:40	09:15	09:25	08:15	08:25	09:00
09:10	09:45		08:45	08:55	09:30
09:40	10:15	10:25	09:20	09:30	10:10
10:40	11:15	11:25	09:45	09:55	10:30
11:40	12:15	12:25		10:30	11:10
12:10	12:45	12:55	10:45	10:55	11:30
12:40	13:15	13:25	11:45	11:55	12:30
13:10	13:45	13:55	12:45	12:55	13:30
13:40	14:15	14:25	13:20	13:30	14:10
14:10	14:45	14:55	13:45	13:55	14:30
14:40	15:15	15:25	14:20	14:30	15:10
15:10	15:45		14:45	14:55	15:30
15:40	16:15	16:25	15:20	15:30	16:10
16:40	17:15	17:25	15:45	15:55	16:30
17:40	18:15	18:25		16:30	17:10
18:10	18:45		16:45	16:55	17:30
18:40	19:15	19:25	17:45	17:55	18:30
19:10	19:45	19:55	18:45	18:55	19:30
19:40	20:15	20:25		19:30	20:10
20:15	20:50	21:00	19:45	19:55	20:30
21:00	21:35	21:45	20:45	20:55	21:30
22:15	22:50	23:05	21:15	21:25	22:00

ASTEBURUETAN

Donostia	Orio	Zarautz	Zarautz	Orio	Donostia
08:00	08:35	08:45	06:45	06:55	07:30
09:00	09:35	09:45	07:45	07:55	08:40
10:00	10:35	10:45	08:45	08:55	09:40
11:00	11:35	11:45	09:45	09:55	10:40
12:00	12:35	12:45	10:45	10:55	11:40
13:00	13:35	13:45	11:45	11:55	12:40
14:00	14:35	14:45	12:45	12:55	13:40
15:00	15:35	15:45	13:45	13:55	14:40
16:00	16:35	16:45	14:45	14:55	15:40
17:00	17:35	17:45	15:45	15:55	16:40
18:00	18:35	18:45	16:45	16:55	17:40
19:00	19:35	19:45	17:45	17:55	18:40
20:00	20:35	20:45	18:45	18:55	19:40
21:00	21:35	21:45	19:45	19:55	20:40
22:00	22:35	22:45	20:45	20:55	21:40
22:30	23:05	23:15	21:45	21:55	22:40

DHARRA: lanegunetan koedro argidin ordutako autobusak Urbieltik pasatzen dira. Asteburuetan, berriz, gutxiak pasatzen dira. Koedro lanetako orduak lanbatalako (lanegun) zerbitzua bakarrik dagozkie.

Aia eta Orio arteko autobus zerbitzua Landabusek darma. Zerbitzuan bursako informazioa lortzeko zentil bide daude:

www.landabus.com Tf. 943 24 01 14 sms-a 5280 zerbakira

ITSASOA

Urria	Itsasgora	Itsabehera	Ilargia
17	06:27 eta 18:54	00:14 eta 12:37	
18	07:09 eta 19:42	00:56 eta 13:24	
19	07:58 eta 20:37	01:42 eta 14:17	
20	08:58 eta 21:45	02:35 eta 15:20	
21	10:16 eta 23:14	03:41 eta 16:39	☾
22	11:47 eta _____	05:03 eta 18:09	
23	00:45 eta 13:11	06:33 eta 19:29	
24	01:56 eta 14:16	07:47 eta 20:29	
25	02:48 eta 15:07	08:41 eta 21:15	
26	02:31 eta 14:49	08:25 eta 20:54	
27	03:08 eta 15:26	09:04 eta 21:29	
28	03:41 eta 16:00	09:41 eta 22:02	●
29	04:13 eta 16:32	10:16 eta 22:35	
30	04:44 eta 17:03	10:51 eta 23:07	
31	05:15 eta 17:35	11:25 eta 23:38	

ZAINTZAKO BOTIKAK



URRIA

- 17n, Zulaika.
- 18an eta 19an, Iriarte.
- 20an, Etxeberria.
- 21ean, Gallo Artiñano.
- 22an, Azaldegi.
- 23an, Zulaika.
- 24an, Iriarte.
- 25etik 31ra, Lasa.
- 01ean eta 2an, Zulaika.

- Azaldegi:** Urdaneta kalea, 8. 943 13 31 83 Zarautz
- Etxeberria:** Gipuzkoa kalea, 17. 943 83 23 98 Zarautz
- Mutiozabal:** Kale Nagusia, 12. 943 83 29 70 Zarautz
- Larrañaga:** S. Frantzisko, 16. 943 13 38 14 Zarautz
- Lasa:** Herriko plaza. 943 83 09 36 Orio
- G.Artiñano:** Zigordia kalea, 17. 943 13 40 19 Zarautz
- Iriarte:** Zinkunegi, Pilartxo Enea. 943 13 29 83 Zarautz
- Zulaika:** Bizkaia kalea, 41. 943 13 39 94 Zarautz

KONTZENTRAZIOA

■ Urriaren 31n, euskal presoak Euskal Herriratzearen aldeko kontzentrazio isila.

TRASTE ZAHARRAK

■ Orion, urriaren 29an jasoko dituzte altzari zaharrak. Bezperan utzi behar dira eta Udalean abisua eman.

BILERAK

■ Orion, ostiralero, Alkoholiko Anonimoen bilerak. 20:00etan, Goiko Kalean, Galtzarri elkartearen ondoan dagoen elizaren lokalean.

■ Orion, urriaren 20an, sanikolasetarako bilera. 19:00etan, kultur etxean.
■ Orion, urriaren 21ean, 23an, 28an eta 30ean, OKK Gazte Asanbladako bilera irekiak. Gaiak: gaztetxea eta sanikolasak. 19:00etan, kosta tailerrean.

PIRINIOTARA IRTEERA

■ Urriaren 20an, hilaren 25ean egitekoa zen Piriniotarako irteera egin ala ez erabakitzeak bilera. Talai Mendi elkartearen lokalean, 19:30ean.

FUTBOLA

■ Urriaren 18an, regional kategorian: Lagun Onak-Orio. Jubenilean: Orio-

**Finalistaren eguna**

Talai Mendi eta Gipuzkoako Mendizale Federazioak Eskolarteko XXI. mendi lehiaketa finalistaren eguna antolatu dute urriaren 26rako, Orion. Gipuzkoako ikastetxeetako neska-mutil guztiek parte har dezakete lehiari eta interesatuek urriaren 23a baino lehenago Talai Mendi elkarteari jakinarazi beharko diote (Tf: 615 76 30 64; mila_oliden@hotmail.com).

Tolosa. Kadeteen: Orio-Luberri. Infantilean: Intxaurren-Orio. Emakumezkoen ligan: Orio-Zarautz. F-11n: Zarautz-Orio.

■ Urriaren 25ean, regional kategorian: Orio-Antzuola. Jubenilean: Aloña Mendi-Orio. Kadeteen: Mundarro La Salle-Orio. Infantilean:

Orio-Ekintza. Emakumezkoen ligan: Lagun Onak-Orio. F-11n: Orio-Ostadar.

BINGOA

■ Orion, urriaren 29an hasita, asteazkeneko, bingo saioak, Zaharren Babes Lekuak antolatuta. 16:00etatik 18:30era,

udaletxeko teilatupeko aretoan aurreneko saioa; gainontzeakoak, kultur etxean.

MEDITAZIOA, MANDALAK

■ Urriaren 22an mandalak egiteko saioa Karmele Garmendiarekin; 29an, meditazioa Iñaki Mendizabalekin. 19:00etatik 21:00etara, Ituribide 7ko Xurumurrukoaren lokalean. Informazio gehiago: 649 87 84 29 (Karmele).

ARETO FUTBOLA

■ Urriaren 19an, nazional B kategorian: Orioko Tabernak-Ancla/Dosanpor. ■ Urriaren 26an, nazional B kategorian: Euskalduna-Orioko Tabernak.

IBILALDI GIDATUA

■ Urriaren 18an. Elkargunea: Lukuneko aparkalekuan, Orioko Gaineko bidegurutzetik, 2,5 kilometrorra. Ibilbidea: Lukun, Artetxota, Sarrola, Sarrola erreka, Orbelaun, Lukun. Itzulera: 13:30ean abiapuntuan.

HITZALDIA

■ Urriaren 22an, Oteiza Arantzazun lanean aritu zen garaiko bizipenak. Hitzlaria: Pello Zabala. Orioko kultur etxean, 19:00etan.

AZOKA**Iragarkietarako txokoa**

Zerbait saldu edo erosi, oparitu, lan eskaintzak, etxea alokatu... nahi baduzu, KARKARAN duzu iragarkietarako txoko berri hau.

Iragarri nahi duzun hori telefonoz (943 83 15 27) zein e-postaz bidali dezakezu: karkara@karkara.com. Merke, gainera, doako zerbitzua baita gurea.

ALOKAIRUA

■ Edozein negozio zabaltzeko lokal ezin aproposagoa alogagai Orion, Eusko Gudari kalearen erdi erdian. Informazio gehiago: 943 83 09 29 (Pilar).

SALGAI

■ Volkswagen California T4 salgai: 2000. urtekoa, 2,5 TDI motorra eta txuri kolorekoa. Ondo zainduta. Tf: 649 89 58 58 (Oidui Usabiaga).
■ Dragon Invacare markako gurgildun aulki elektrikoa eta ranpak salgai, berri-berria. Prezioa: 3.000 euro.

Tf: 943 83 27 63.

■ Egoera onean dagoen Volkswagen Golf autoa salgai, 1991. urtekoa. Tf: 630 77 88 07.

■ Sagarminak (makatz basatiak) saltzen dira. Tf: 662 390 838. Felix.

■ Mercedes Class E autoa salgai. 2003. urtekoa, 89.000 km eta ondo zaindutakoa. Tf: 647 10 16 46.

GALDUTAKOAK

■ Bi urteko neskato baten galtza bakeroak galdu nituen irailaren 24an. Plastikozko zorro batean zeuden eta uste dut frontoiaren eta Blink

tabernaren artean erori zitzaidala. Aurkitzen duenak, dei dezala, arren, 943 89 05 72 zenbakira.

■ Perla beltzezko loretoak dituen zilarrezko pultsera bat galdu nuen irailaren 24an. Haize Berri taberna eta ikastola aurreko plazaren artean erori zitzaidan. Aurkitzen duenak dei dezala mesedez 635 732 870 zenbakira (Mirentxu).

LAN ESKAINTZAK

■ Montaje eta ajuste mekanikoan aritutako langilea behar dugu. 669 01 43 49.

